



UXUE -ko zelaietatik

TXILLARDEGI

Nafarroa ez da sekula osoki ezagutzen. Beti ere aurkitzen du harako bidariak bazter eder berririk eta txoko ez-ezagunik.

Eta horixe gertatu zait niri oraingoan; zerenn-eta Uxue-ren berri lehenagotik izanik ere, oso eskualde ikusgarri bat topatu baitut.

Ez dakit benetan Uxue honetara etorritakoa zerk harritzen ote duen gehienik.

Herria bera dago, jakina, giputz batentzako oso bitxi: tontor baten Ekaldeko mazelan kokaturik (ia-ia 800 metro gora, mendibeko Tafalla eta ingurukoak 400 inguruan daude-larik), zenbait aldetatik Uxue-k Aragoi-ko Sause dakar gogora (erd. Sos del Rey Católico). Antzeko etxe zaharrak honetan eta hartan, antzeko gailurra hiri oinarriztat, antzeko lekutasuna: mendialdeko azken talai gora gisa, behereko zelai zabalera begira.

Harria hemen nagusi, arras ikusgarri gertatzen dira Uxue-ko kaleska medarrak, eta mailadiak, eta zubi-eteak; eta baserri kutsuko atariak, beren abereentzako gakoak eta guzti. Eta arrunt bitxi ere Uxue ondoko zelai zabal eta garaietatik, tontor honek hartzen duen itxura.

Benetan iruditzen zait Uxue hau margolarien paradisua bera izan daitekeela! Eta alimaleko eliza-gatzelu

zaharrak, eta beronen balkoinek eta dorreek, ez diotela herriari berari ezertan zorrik.

Mingarri gertatzen da, horrela, han eta hemen etxé zaharrak erortzen hasiak topatzea. Hortxe dautza, tarteka beren oruetan ahantzirik, eta belar eta osin izpi batzu hozitzen hasiak agian, habeak, harriak eta teilak. Eta etxe-hondakin horiek, Uxue osoa bezala, hustutzen ari den Ekaldeko Euskal Herri honen sinbolo garratz bihurtzen dira: «hace pocos años éramos todavía dos mil en Ujué, hoy apenas somos más de quinientos», esan didate.

Eta, amespideak alde batera utzita, harritzekoa ez da. Hemengo etxeek ez dute aberats-kolore dotorerik. Eta bertan bizi den jendeak apala dirudi. Uxuetarrak, orain dela mende asko bezalaxe, artzain edo nekazari gisa bizi dira. Eta bi biziridianoa hartu,

eta gauza bera esan liteke eskuin aldean dagoen herrialde guztiko jendetzaz (zuberotarrak barne, jakina). Hots, Ekaldeko Nafarroa hau da Caro Baroja kezkatzen duen Nafarroa. Ezen lehen Orreaga, eta Leire, eta Xabier, eta Herriberri, eta Uxue (eta Onsella, Sause eta Jaka bera ere bai) izan baziren Euskal Herriaren arragoa, arrago hau gaur Bilbo-ra eta Barakaldo-ra, eta Gernika-ra, eta Gasteiz-a aldatu baita: Ekaldea hustutzen ari, Mendebaldea jendez mukurruari ohi den irudian, maila bereberekoko aldakuntzarik? Nola ez uler gaur Mendebaldean «egosten» ari den hori guztia, uxuetarren, eta Ekaldeko herrikideen, ikuspuntutik halako gordin edo arrotz kutsua duenik? eta Mendebaldeko berriare-kutsua eta errorik eza nabarmenegi daramatzanik? Badago horrelako zerbait, dudarik gabe; eta oso kontutan hartzeko da. Euskadiren sustraiak eta oroitzapenak, hain zuzen ere, hustutzen ari den Nafarroa idor honetan baitaude, eta ez beste inon.

Jesus Lezaun lankideak bere azkeneko artikuluan argiro esaten zuenez, bi Euskal Herrien bilduma, superazioa edo gaindikuntza hartu behar dugu helburutzat. Eta guztiz bidez, antzinatik datorkigun beste bitasuna gogorazten zigun; «ager vasconum»



Untz-eko San Martin aldetik
etorririk, Uxue ageri.

batetik, «saltus vasconum» bestetik. Uxue ere Euskal Herria da.

Eta ez erromatarren garaian-edo bakarrik!

— No tengas miedo a ese perro: no es malo como el «Artxa»...

Euskararen oihartzunak ez dira Uxue honetan arrunt aiantzi:

— Sí. A este barranco le llamamos aquí Azandieta, y a aquél Aliaga.

Landare-izenetan ere, Xabier Irigarai ongi erakutsi digunez, ugari bizi da euskal hiztegia: arangurbe, txulubita, txoxabarko, gardantxa, kolostia, txaparro, arto, karraskilla, eta abar. Kontu zaharrak ote? Ez dut uste.

Bospasei lekutan irakurri ditudan «Gora Euskadi Askatuta» horiek, eta frontoiean pintatu duten euskal ikurrinak, ez dute horrelako muzinik idarokitzen.

Azkeneko hauteskundeetan, azaldu didatenez, hiru kontzejal atera ditu UCD-ak, eta gure alderago agertzen diren «independiente» izenekoek (Simon Ongai artzaina buru), lau. Ez baita besterik gabe leun-leunean joan!

Kondaira-liburruen bidez ezagutu ditugun uxuetar haiek: Paskual Bidagille, eta Garzia Buruzagi, eta Xemen Xuriko, eta Sebastian Beltza, eta Ienego Izurra, eta gainerakoak, ez dira hemen arras suntsitu.

Pertsonaren neurria, hau bai, laburregia da herrien kondairan. Baina Uxue-ren euskaltasuna ez da hain aspaldikoa: «yo he conocido a todos los viejos hablar vascuence (en Gallipienzo)», izkiriatu zuen Jose Mateok 1730-an. Hots, Galipentzu delakoa hortxe dago, Uxue peko ibar eman-korrean. Eta Uxue mendi-gaina izanik, segurutzat eman daiteke euskaldun egon zela XVIII. mendean barrena (XVII. mendean euskalduna zela badakigu; Idoatek ezagutarazi dituen dataei esker, besteak beste).

Nafarroako eskualde hau nola eraldandu zen gogorazten, bestalde, ez da txarra izango: «el maestro fue la causa de que se perdiese la lengua primitiva (en Gallipienzo)», dio bertako seme den J. Mateo berak 1730-an. Eta gaurko euskaltzaleok baina askoz ere lehenago, ohar mamitsu hau erantsi zuen: «y obró mal».

Noiz eskeiniko ote zaie Nafarroako euskaltzale apal eta aiantzi hauei, Euskal Herri osorak handiro eman behar liekeen goratzarrea?

Bego jadanik, ongi markaturik, galipentzutar horren izena.

EUSKADI SIOUX

PUTXERAZO!!

Municipales: debut con putxerazo. Las comunas en Euskadi.
Zertaz ari diren hienak parrez? La Orámica a Sudcar.
Encuentros en la literatura pública.
Euren na. mes a de ks eusko gais.

NS15 Abril 79/60 Ptas.

EUSKADI SIOUX

EL TERROR DE LO COTIDIANO



DE VENTA EN TODOS LOS QUIOSCOS